

atera gorria!



bbk=

www.bbkes

BBK26=

abantaila eta deskontu pila

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
Deia

2005ko MAIATZA
77. zkia. DOHAIN

Garbitxu

"Deabru Beltzak
nazioarteko
merkatua duen
lehen euskal
antzerki taldea da"

Sex-Shopa

Ya te digo taldea

Udaberriko bertsoak



Campo Volantin jausi zanekoa (1993)

1993ko zezeilean gertatu zan. Hil batzuk arinago arrakalak agerian lotu ziran Campo Volantineko pasealekuko behegainean, Udaletxetik hur. Hala eta guztiz be, inork ez ei eban ezer egin eta zezeileko goiz baten kai zati bat blautst jauzi zan Ibaizabaleko uretara. Zorionez, inor ez ebilen orduantxe bertatik. Erretratua pareko ibarretik eginda dago, eta, ondo erreparatu ezkerro, uretan farolak, barandak eta arbolak ikusiko doguz.

Argazkia Ricardo Perezek itzi dosku



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.

kaia Foru Fundazioa
Buztatu Foral Bizkaia
kaia.net

BIZKAIERAZKO
ALDIZKARI
ELEKTRONIKOA


bizkaie!

IV. urtea // 111. zenbakia
2005ko maiatzaren 29a - 3:56 55

■ Barrietan
Mikel Arredondo: 'beti geratzen zara beste gauzaren bat egiteko gogoagaz'

Bizikletaz etorri da hitzordura, hainbeste ordutan bidaia-lagun izan dauen bizikleta horiaren pedalei Bilboko kaleetan zehar gogor emonez.

Hiru hilabeteko bidaia izango zana urte biko abentura



▶ Iritzia4	▶ Inkesta19
▶ Sex shopa5	▶ Mahatsberriak20
▶ Begoña eta euskerea8	▶ Hezkuntza24
▶ Taldea: Bizkaie10	▶ Mello mendia27
▶ Ya te digo taldea12	▶ Bertsolariak28
▶ Elkarrizketa: Garbitxu15	▶ Horoskopoa/Agenda30

Honeik Bertonekoak diñostie ze daukiez oingo hilerako gauze asko kontateko ta aber zelango entradie eitten dotzedan danari ezebe ahiztu barik, ze oingoa inportantie ei de ta. Jodeeee! Ze ixingo da ba? Aitu daigun aber. Ikusten hasi ta: sexue, rokanrrola, artiste famosoak, internea, museoak,... Hara! Honek deko antza horreik periodikoak domekan ataten dauriezen suplementoana ba! Emoten dau honeik Bertonekoak gure dauriela rebistieri bestelango linea diferentie emon, ta linea hori dala komertzialmentien agresiboagoa ta modernoa. Ta barruntoak hartuten hasi naz hamen ez ete dabilen operaziño mediatiko-komertziala inperiomediatikoa edo eitteko da hamengo elitintetuala alde batera botateko, da horrek danak kontuek ekarri leikiez, ze elitiek ondiñokarren poderie eduki deko ta.

Derrepentien Mahatsorridxek oindala ehun urte zelango karetoak eukiezan edo 1657en Begoñeko txakolinan zenbat litro saltzen eutziezan Medinaceliko markesari da holango kontu handidxek kontatiegaz batera, Santutxun zelango bibradoriek erosi leikezan kontatie, edo bertoko teatero, rokanrolero eta eskritore famosoan esitoari lorak botatie, edo bertsolaridxen espetakulu en kronika soziala eittien moduko gauzek pisue koxitten hasi ezkerroan hamen laster baten intelektualen manifestoa dekogu Honeiri Bertonekoeri esijiduten bide zuzenera atzera etorri daittezen.

Hori, hori, hori ba, polemikieeee ba! Sexue, rokanrrola, drogak eta pelikak. Aber sikieran aburriduten ez bagara.

Firmatue: Nahastorri bat

Landaburu Baserria kaleko sex-shopa lau ataletan dago banatuta. Zati batean kondoneria dago. Bertan kondoiak, lubrikanteak, kitzikagarriak, ileak tindatzeko produktuak eta masajeetarako olioak daude, besteak beste. Beste alde batean bromak egiteko produktu erotikoak eta despedidetarako txokoa dago. Sex shoppean despedidak antolatu ere egiten dute, horretarako dendan moztorro bakar batzuk dituzte salgai, baina gero haiek arduratzen dira, denboraz eskatuz gero, noski. Jatetxea, tarta erotikoa, moztorroak, bromak...dena prestatzen dute bezeroak eskatzen duen neurria.

Behin-behineko espektakuluak ere antolatzen dituzte La cosa más dulcekoek, go-goak, boys-ak, eta halako zerbitzuekin harremana baitute. Beraz, denetarik dute jai edo eta ospakizun berezi horiek egiteko.

Dendak eskaintzen duen beste zerbitzu bat film eta dvd salmenta-alkairua eta aldizkariak dira. "Inguruko bideoklubetan eskaintzen ez dituzten filmak ditugu, atzeritik ekarritakoak dira, batez ere, horren errez lortzen ez diren horietarikoak", esan du Iratxek.

Gainera, alokairu eta salmenta sistema ezberdina da. Zuk erosi egiten duzu lehen filma hogeita bat euroren truke eta film hori hilabeteko epean itzultzen baduzu, hartzen duzun hurrengo prezio erdian eramaten duzu. Eta hortik aurrera daramatzazun guztiak prezio erdian erosiko dituzu. Beraz, lehen filma izan ezik beste guztiak zuretzat dira. Sistema hori Bartzelonan asko erabiltzen da eta jendeak behin baino gehiagotan filma bat ikus dezan oso egokia da. "Filmak lau ordukoak izatea nahi dugu, gastatzen duzun dirua errentagarria izan dadin", azaldu du Iratxe Izquierdok.

MAKINEN APALATEGIA

Dendako beste atal batean, makinaren apalategia dago. Azken belaunaldiko kontsolagailuak, film pornoetako aktore ezagunek



iragartzen dituzten produktuak... bibratu, aldi berean bira egin eta klitoria kilikatzen duten kontsoladoreak daude, hain zuzen. Uzki-kontsoladoreak, txinatar bolak, uretan sartzeko kontsoladore bereziak,... Horrez gain, sadoa praktikatzeko zenbait artikulu ere bada go, metalezko kontsoladoreak, uhalak, arnesak, latigoak, eskuburdinak...

Sex shoppean panpina puzgarriak eta zakila luzatzaileak era badaude. Luzatzaile aparatua batzuek denbora gutxi irauten dute (bi ordu) eta badago ere zakila betirako luzatzen duena, baina azken hori mediku baten aholkuaz aplikatu behar da, tratamenduaz dator eta. Panpinen kasuan prezio askotakoak daude, hogeiturotako panpinak despedidetarako eta hirurehun eurotako ere badugu, esate baterako. Ezberdintasuna uki leunean dago, garestienak leunagoak dira eta neska-mutilen aurpegiak eta ilea ere erreagoak dira. Hala ere, dendarien esanetan, "gehien saltzen den produktua 'Loreak eta erleak' izeneko kondoiak dira, ildaskak (estriak) dituzten kondoiak dira eta oso arrakatsuak dira bezeroen artean".

ARTIKULU BERRIAK PROBATU

Iratxek argitu duenez, "denetarik dago bezero aldetik baina gehienak ideia batekin datoz eta bide batez niri eskatzen didate aholkua. Azkenean, pentsatzen zutena baino gauza gehiago eramaten dituzte probatzeko. Badaude ere errepikatzen dutenak, produktua asko gustatu zaielako. Batzuk pixka bat galduta datoz eta uzkirako ala alurako den galdetzen dutenean, nik norberak nahi duen tokirako dela esaten diet". Orokorrean nahiko galduta goazela aitortzen digu Iratxek. Sex shopak Hegoak Bilboko gay eta lesbianen elkartarekin kolaboratzen du eta horrez gain web orria dauka, kontsultarako nahi izanez gero, www.lacosamasdulce.com helbidean. Bertan foroa, e-maila, produktuen argazkiak, lenteria eta beste hainbat kontu ikus daitezke.

2005ko maiatza - 77. zkia.

IRATXE IZQUIERDO: "Lorena Berdunen programak asko laguntzen digu"

Zelan sortu zen Santutxun sex shopa jartzearen ideia?

Nik enpresa ikasketak egin nituen eta jaialdi baten lagun batek erdi brometan esan zigun Santutxun halakorik ez zegoela. Sex-shop berezia egitea erabaki genuen Davidek eta biok. Kabinarik ez du eta denda argitsua da, beste edozein denda bezalako.

Nola jarri zenuten martxan?


Lehenengo Bartzelonara joan ginen, han baitago arlo honetako onena. Enpresa jakin batzuekin harremanetan jarri ginen eta erraztasun handiak ematen zizkigutela ikusita lokala bilatu genuen. Dendaren diseinua eta logoa ere pentsatu genuen eta handik bi hilabetera martxan jarri genuen denda.

Proiektu aurrera ateratzeko laguntzarik izan duzue?

Bai, noski. Eusko Jaurlaritzak eta INEMek emandako diru laguntzak jaso ditugu. Lan Ekintzan ere enpresa ikastaro bat egin nuen eta laguntzak eskatzeko lagungarria izan da. Enpresa sortzen irakasten dizute, proiektua nola martxan jarri, marketinga, ekonomia, kudeaketa... irakasten dizute.

Lan zaila izan da?

Egia esan, buruhauste handiak ekarri dizkigu zabaldu arte. Nahikoa zaila da, batez ere diru aldetik.



Lehen hilabeteetan malabareak egin behar izan ditugu denetarako izateko. Baina azkenean, abenduaren 16an zabaldu genuen. Hala ere, oso balorazio ona egiten dugu, jendea gero eta gehiago zabaltzen doa.

Hasieran detailetxoen bila besterik ez zetorren jendea, baina orain benetan erosi nahi zutena erostera datoz, makinak, aparatuek...

Bezeroekin harremana zelakoa da?

Ona. Gauza berriak probatu nahi dituela dioskun jende asko dago. Horrez gain, telebistan Lorena Berdunen sexu programak asko laguntzen digu. Nire lankideak ostegunero ikusten du, hurrengo egunean jendeak zer eskatuko digun jakiteko. Gu ez gara sexologoak, produktuak ekartzen dizkigutenean instrukzio eta katalogoekin konpontzen gara. Dena dela, Bartzelonan egon ginenean nahikoa ondo azaldu ziguten aparatuen funtzionamendua.



Garraioak

Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna Iturriaga, 92
 kazolaxtoak eta pintxo goxoak

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

BEGOÑA ETA EUSKERA

Sei hilabetez egongo dira ikusgai Eulalia Abaituak Begoñako errepublikan egin zituen argazkiak. Bilboko Euskal Museoak ehun erretratu hautatu ditu eta bi ardatzen inguruan harilkatu ditu: eguneroko bizimodua eta Begoñako santutegia. Mahatsorri peto-petoek ezin dute aukera hori galdu.



BIZKAIERAZKO
ALDIZKARI
ELEKTRONIKOA

bizkaie!

BIZKAIE, BIZKAIERA HUTSEZKO ALDIZKARI BAKARRA SAREAN

Mendebaldeko euskarari komunikabideen munduan leku egitea du helburu



BIZKAIERAZKO
ALDIZKARI
ELEKTRONIKOA

bizkaie!

- HASIKEREA
- AGENDA
- ANTXINA-BARRI
- AURKIBIDEA
- BARRIAK BARRI
- BARRIKETAN
- BEGI-BETE GARRI
- BERTSOTAN
- BOTAZINOAK
- BIDAIDE
- ERETXIA
- EUSKALDUNOK MUNDUAN
- EUSKERA BERBAGAI
- IRAKURLEAREN TXOKOA
- JAN-EDANAK
- JO BEGIZ
- KULTUREA

Bizkaiera hutsezko aldizkari elektronikoa da Bizkaie. Txurdinagan du erredakzioa eta duela hiru urte sortu zen mendebaldeko euskarari bultzada bat emateko helburuz. Bizkaierak komunikabideen arloan zuen hutsuna ikusita, horrelako proiektu bat aurrera eramatearen beharra ikusi zuten; gaur egun ere Bizkaie da bizkaieraz sarean aurki dezakegun aldizkari bakarra. Helburu nagusia beraz mendebaldeko euskara sustatzearena izan zen, eta horren normalizazio prozesuan ekarpenak egitea. Hala ere, helburu gehiago badituztela esan digute aldizkariaren egileek, irakurzaletasuna bultzatzea adibidez.

Testua: Eneritz Ibarrondo

'Zinea' atala ere badago. Zinearen inguruko edozer aurkitu ahal izango dugu bertan, kritikak batez ere

la eta 'barriak barri' albiste atala). Erredakzioan, lau pertsona daude lanean. Horiek ordea, ez dira aldizkaria aurrera eramaten lagunduko duten bakarrak. Kolaboratzaile ugari daukate, atal bakoitzeko bat edo bi (hamabost bat kolaboratzaile guztira).

MUNDU ZABALA
Bizkaie, bizkaiera hutsezko aldizkaria den heinean, askok pentsa dezake-

te Bizkaia bakarrik hartzen duen aldizkaria dela. Hori, ordea, ez da horrela, aldizkariak mundu zabala hartzen du kontuan. Interneteko aldizkari bat den heinean, mundu osora hedatzen da. Ondorioz, ez dituzte bertako gauzak bakarrik lantzen, mundu osoan gertatutakoa aurki daiteke hemen.

Egileen arabera, orotariko aldizkari bat da hori, nahiz eta aldizkari kultural batetik oso gertu egon. Horrela, aldizkaria zabaldu bezain pronto hainbat ataletan banatzen dela ikus dezakegu.

Sailetako batzuk ondoko hauek dira: 'Barriketan', zeinetan astero edozein gairen inguruko elkarrizketa sakon



gaiak agertzen dira. Eta 'Bertsotan' atalean, bertsolaritza munduari lotutakoak lantzen dituzte. Hemengo kolaboratzailetako bat Iñaki Aurrekoetxea santutxuarra da. Bestaldekik, 'Irakurleen txokoa' ere badago, zeinetan irakurleek izango duten euren kritika eta iritziak argitaratzeko aukera, horrela haien parte hartzea bultzatuz. Atal guzti horiez gain, hasieran aipatutako 'Agenda kulturala' eta 'Barriak barri' albiste saila daude.

ERRONKAK
Aurrera begira atal berriak sortzea dute buruan. Kirola edota mendiari buruzko atalen bat adibidez. Bestaldekik Weblog formatua aplikatu nahian dabilta, horrela irakurleen parte hartzea bultzatzeko. Irakurlearen txokoa dute orain honetarako, baina uste dute Weblog-arekin errazagoa izango litzatekeela. Hala ere, aurrera begirako helburu polit bat aipatzekotan, astekari izatetik egunkari izatera pasatzea aipatu dute. Hori gauza zaila dela onartu dute hala ere.

bat egiten den. Kulturak ere badu bere atal espezifikoak. Liburuaren aurkezpenen, antzezlanen eta gainerako kultur nobedadeen berri emango dute alderdi horretan. Bidaia kronikak biltzen dituen atala ere badago, 'Bidaide'. Informatikari lotutako gaiak 'Sarean' sailean lantzen dituzte: ateratzen diren tresna berriak, birusak...

'Zinea' atala ere badago. Zinearen inguruko edozer aurkitu ahal izango dugu bertan, kritikak batez ere. Bazter gastronomikoa ere badago, 'Jan-edanak'. Antzinako kontuez aritzeko ere, 'Antxinabarri' atala daukate. 'Euskara berbagai' sailean, euskarari buruzko

Bizkaie irakurtzeko, jo web gune honetara: www.bizkaie.biz

U
D
N
O
T
E
R
T
O
N

E
R
T
O
N
D
U
G
U
E
R
T
O
N



YA TE DIGO, ROCK GOGOR, ILUN ETA SUBERTSIBOA

berton

Otxarkoagako taldeak bere diskorik
biribilena kaleratu berri du

Testua: Nerea Aburto

Argazkiak: Aingeru Zorita

Duela zortzi urte Otxarkoagako hiru gazte, David (abeslari eta gitarra), Oscar (bateria) eta Juanjo (gitarra), auzoan elkartu eta batera musika egiten hasi ziren. Geroago, taldeak *Ya te digo* izena zuenean, Gorlizeko Edu (baxu jolea) batu zitzairen. Guztira lau musikari, zortzi urte hauetan *Ya te digo* musika talde gisa hazten joan direnak. Apirilean 'Kill Switch' euren disko berria kaleratu dute, orain arteko euren lanik borobilena kritikariaren ikuspuntutik eta euren gustukoena Daviden esanetan. Kataluniara biran alde egin aurretik, *YTD* taldeko abeslariak BERTONekin egoteko eta orain arteko euren ibilbideari buruz hitz egiteko astia izan du.

Ya te digo, izenak beste zerbait pentsarazten badu ere, rock talde bat da, nahiz eta David Honorato abeslariak etiketa horri zenbait ohar gehitzen dizkion: "Ez da rock bezala ezagutzen denaren antzekoa. Gure musikak jendea ohituta ez dagoen alde subertsibo eta alternatibo asko ditu. Gogorra eta iluna izan daiteke ohituta ez dagoenarentzat".

Edozelan ere, Davidek zehaztu duenez, "rockaren alderik herrikoiena ere lantzen dugu; bi alderdiak batzen saiatzen gara, esperimentazioa eta betiko rocka". Beraien musika estiloaren antzeko taldeak aipatzeko eskatzen diogunean, Davidek Cancer Moon, Velvet underground, Lou Reed eta Sonic Youth erantzun digu.

TALDEAREN IBILBIDEA

Ya te digo taldea 1997an jaio zen, David eta Oscar taldekideak, lehenagotik elkarren ezagunak, kontzertu baten Juanjorekin jotzeko aukera izan zutenean. "Asko gustatu zitzaigun zelan jotzen zuten eta orduan hirurok banda osatu genuen", esan du Davidek. Gerora, Gorlizeko Edu (*Lor Sickness* taldeko gitarrista ohia) batu zitzairen eta gaur egungo taldea osatu zuten.

1999 urtean euren lehen maketa ('*Ya te digo*') grabatu zuten El inquilino komunistako Javier Letamendiarekin, eta berarekin *Rock de lux* musika aldizkari arrakastuak antolatzen duen maketa lehiaketan bigarren gelditu ziren. Ondoren, 2000 urtean Bilbo Hiria maketa lehiaketan euskal talderik onenaren saria eta estatu mailako bigarren saria irabazi zuten.



*Taldearen proiektuen artean
bideoklip bat grabatzea dago*

UDA 2005

KANPING ETA BUSA
EUROPAN ZEHAR.
15 EGUNEKO BIDAIAK
EUSKARAZ

Mikelizargi@euskalnet.net

Izargi Bidaiak

GRUPO STAR
VIAJES

Iturriaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

★
KAIKU
Munduko Herrien Btxea
Arsuaga 1 Santutxu

ADi
ASESORIA
FISCAL, CONTABLE, LABORAL
ARREDO - MERCADERIA

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza



urretxindorra
megadenda

9'30etatik
20'00etara

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparagirre, 26 (48011 Bilbo)
Tfnoa: 94 4240228

urretxindorra@megadenda.com
www.megadenda.com



iven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet, 9 Santutxu 4731460
Arbidea, 21 Txurdinaga 4117656

Lehiaketa bi horiek irabazi izan-
nak ate asko zabaldu zizkion tal-
deari eta horrela gogoratzen du
Davidek: "Bilbo Hiria maketa
lehiaketa Europako garrantzitsuena
da seguruenik, eta *Rock de Lux*
bezalako aldizkari baten agertzeak
asko suposatzen du,
zalantza barik. Haste-
ko, lokaleko entse-
guetatik estatu maila-
ko aldizkarietara eta
jendeak zugatik apus-
tu egiteko prest ego-
tera pasatzea jauzi
handia da. Gainera
disco bat grabatzeko
miloi bat jaso genuen
eta merkaturatu sartzeko
lortu genuen".

2001 urtean euren
lehen albuma
'Unruhe' Madrileko
Astro diskoetxearekin
grabatu zuten. "Astro-
rekin,

Bilbo Hiria irabazi
aurretik kontaktuan
g e u n e n .
'Crash#001' Ep-a


eurekin grabatu genuen.
Madrileko zigilua da eta
Manta Ray eta *The Bröntes*
bezalako taldeak mugitzen
ditu; gurea bezalako musi-
ka batez ere. Baina gaztele-
raz kantatzen duen talde-
ren bat ere mugitzen du,
Niños mutantes eta *Habita-
ción roja* adibidez. Astrok
duen eskaintzarik komer-
tzialena dira."

'Unruhe'-k 2.500 kopia
saldu zituen eta aurkezteko
Mogwai eta beste talde
batzuekin biran joan ziren
Ya te digo taldekoak.

"Horren ostean *12twel-
ve* Bartzelonako taldea
ezagutu genuen eta batera
disco bat ateratzea erabaki
genuen, hemen sekula egin
ez den zerbait: bi talde
ezberdin gara eta bakoi-
tzak bere abestiak grabatu zituen
eta gero beste bi abesti batera egin
genituen. Bira elkarrekin egin ahal
izateko egin genuen". 2.000 kopia
saldu zituen eta gaztelaraz abesti

bat sartu zuten lehen aldia izan
zen.

Ya te digo taldeak ingelesez
abesten ditu abesti gehienak eta
honen arrazoia fonetiko delako
aitortzen du Davidek. "Guk egiten
dugun musika motari eta nire aho-



KILL SWITCH

Ya te digoren azken diskoa aurrean ateratu berri
dutena da: 'Kill Switch' (Astro 2005), kritikoa asko-
ren esanetan orain arteko euren lanik onena. "Kri-
tikoen gustukoak izan gara beti, baina gero ez
dugu nahikorik saltzen eta ez gara nahikoa eza-
gunak. Hala ere, egia da, azkeneko disko honetan
askoz ere gehiago nabaritzen da zer nahi dugun
eta soinu aldetik gure zuzenekoarekin antza
gehiago dauka, kañeroagoa da. Bilatzen genuena
zen eta ondo gelditu dela uste dut", aitortu du
Davidek.

'Kill Switch' Paco Locorekin grabatu dute
Cadizen eta nahasketak New Yorken *Girls against
Boys* taldeko Eli Janneyk egin dizkie. "Oso espe-
rientzia berezia izan da. Cadizen primeran pasatu
genuen Paco Locorekin eta gero New Yorkera
nahastera bidaltzearena iaz Eli Janney ezagutu eta
gero suertatu zen. Egia esan, irten denarekin oso
gustura gaude".

tsari hobeto dagokie ingelesa. Gus-
tatuko litzaidake gaztelaraz abes-
tea baina ez zait gustatzen belarri-
ra zelan ematen duen. Agian 80.
hamarkadako musika egingo bage-

nu, Alaskak egiten duenaren antze-
koa, ondo egongo litzateke, baina
guk egiten dugunarekin ez dut
ikusten".

ETORKIZUNARI BEGIRA


"Hemendik aurrera grabatzen eta
birak egiten jarraitzea
gustatuko litzateke. Beste
asmorik ez daukagu, azken
finean lagunekin
furgu baten jotzera
joatea gehien gusta-
tzen zaiguna delako. Ez
dugu honekin abe-
rasteke itxaropenik. Ez
gara modetara egokitzen
den talde bat, guri gusta-
tzen zaiguna egiten jarrai-
tuko dugu", argitu du
Davidek.

Taldearen proiektu-
en artean bideo-klip
bat grabatzea dago,
horrela taldea ezagu-
tarazteko bide berri
bat probatu nahi dute
taldekideek: "Ezagu-

nak izateko formula magi-
korik ez dago, irratiek for-
mula komertzialetara
jotzen dutelako, Radio 3
bera ere. Telebistan ere
ez dago lehengoak bezalako
programak. Telebistan ager-
tzea 'la ostia' da, baina
gurea bezalako taldeak ez
dira agertzen. Ea bideoare-
kin telebistan azaltzea lor-
tzen dugun", bota du Davi-
dek.

Maiatzean azken diskoa-
ren aurkezpen bira hasi dute
eta Donostia, Bartzelona,
Tarragona, Granollers,
Madrilera,... eramango ditu.
Bilbon zuzenean ikusteko
gogoia dutenek ere aukera
paregabea izango dute ekai-
naren 10an Bilborocken.
Dohainik joateko aukera ere
izango dute taldearen azke-
neko diskoa erosi eta Astro disko-
etxearen web orrian erregistratu egi-
ten direnak. Gaur egungo musika
merkatuaren egoerari aurre egiteko
formula berria eta irudimentsua.

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a



GARBITXU

"Deabru Beltzak nazioarteko merkatua duen
lehen euskal antzerki taldea da"

*Santutxukoa da Garbitxu,
mahatsorri petoa. Duela
bederatzi urte 'Deabru Bel-
tzak' antzerki
taldea abiarazi zuen, beste
hiru kiderekin batera.
Gaur egun euskal antzerki
talderik internazionalena
da. 'Les tambours de
feu/Su danborrak'
antzezlanarekin ate guztiak
zabaldu zituzten eta orain
segida eman nahi diote
bide horri 'Les diables
noirs' obra berriarekin.
Frantzian estreinako
emanaldiak egin eta gero,
gurekin egon da berbetan,
uda gogor bati
ekin aurretik.*

Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Itziar Azkona

2006an hamar urte beteko duzue. 'Les diables noirs/Deabru beltzak' zuen antzezlan berria urtemuga horri begira ere badago. Orain arteko zuen lanaren isla izango da?

Ez, gure lanaren jarraipena. 'Les tambours de feu/Su danborrak' gure bultzakada handiena izan da, orain arte eduki dugun ikuskizunik arrakastatsuenena. 'Les diables noirs', deabru beltzak frantsesez, su danborren jarraipena da. Danborren soinua hor dago, kontzertu bat da, kontzertua teatro bihurtuta. Eta gainera, bisitatu ditugun herriak eta leku guztiak inspirazio iturri bihurtu ditugu.

Erritmoa, piroteknia eta umorea erabili dituzue osagai gisa...

Bai. Gure estiloa mantenduz, jarraipen bat: piroteknia, estilo ilun edo beltza eta danborrak. Eta ezaugarri bereziak, berriena, umorea da. Pertsonaiak nahikoa alaiak dira. Umorea sartu nahi genuen, beste klabe bat.

Luxua ere badela esan duzue...

Bai. Produkzioa handia da, oso garestia. Ea 'enbarkada' horretatik errekupe-

ratzen garen. Egia esanda, nahikoa akonjatuta gaude. Ondo funtzionatuko duela espero dugu. Orain arte, behintzat, ondo doa, jendea ikuskizuna kontratatzen ari da oraindik ikusi gabe. Guk daukagun zigilua eta estiloa bermea dira. Baina diru laguntza txikia daukagu eta produkzioa izugarri handitu da, halako bi hazi da proiektuarekin hasi ginenetik...



Baina hori gero ikuskizunean islatuko da...

Ah, bai. Igarri egiten da. Baina gu pixka bat akonjatuta egoteko. Orain ikusi behar jendeak obra zelan hartzen duen...

Oraintsu Frantzian egon zarete lehenengo antzezenak egiten. Zelan joan zaizue?

Nahikoa ondo. Frantziako publikoa hotz-hotza dela, esperientzia oso ona izan da. Gainera, akats batzuk kentzeko eta ikusleekiko zuzeneko harremana edukitzeko balio izan zaigu. Esperientzia eta kritikak onak izan dira.

Hasiera egokia, beraz...



Bai, baina guretzat ikuskizun bat finkatuta dago hogeita bost ekitaldi egin eta gero. 'Su danborrak'ekin, esate baterako, hainbat eta hainbat aldaketa egin genituen lehenengo urtean. Baina lehenengo urte hartan 47 ekitaldi egin genituen. Eta oraindik 'Su danborrak' ikuskizunarekin jarraitzen dugu, hainbeste kontratu dauzkagu, 2008 urterako ere kontratuak dauzkagu, eta ikuskizun hori primeran dago orain. Bolekin eta ekitaldiekin asko ikasten da, hobetu egiten duzue eta oraindik ere hobetzen ari gara. Azkenean kalitatean ikusten da.

Eta Frantziarekin zer daukazue ba? Estreinako ekitaldiak Frantzian, tituluak frantsesez, prestakuntza

asko be han egiten dituzue...

Bai. Zergatik? Alde batetik duela hiru urte Pariseko manager batekin hasi ginen eta bere bulegoko pertsona batek guretzat bakarrik egiten du behar. Tituluak frantsesez idaztea marketing kontu bat da. Euren horrelako kontuak asko estimatzen dituzte eta... zergatik ez?

Ekitaldiak ere asko egiten dituzue han, ezta?

Bai. Iaz ia berrogeita hamar ekitaldi egin genituen. Eta hori asko da.

Eta Quebec?

Aurten berriro tokatzen zaigu. Munduko antzerki jaialdirik indartsuenera itzuliko gara. Montrealeko Juste Pour

Rire jaialdia alegia. Hamazortzi ekitaldi. Ametsa da bertara joatea eta gu oraindik ametsetan gaude. Ez dugu sinisten berriro joango garela. Oso zaila da. Baina Quebecoko gobernuan daukagun harremanak eta han eduki genuen arrakastak bidea asko erraztu dute.

'Les tambours de feu' erabakigarria izan zen zuentzat. Taldea beste bat da obra horren ostean?

Ez. Taldea berdina da eta ekipoa lehengoa da. Gure ekipoa oso ona da eta asko mimatzen dugu, alde guztietatik. Baina obra horren ondoren asko aldatu da taldea orain ez garelako talde makal bat, munduan zehar ezauna da Deabru Beltzak. Edozein zir-


kuitutako programatzaileak ezagutzen gaitu, gure ikuskizunak ezagutzen dituzte eta horrek bideak zabaltzen ditu. Orain lokal polita daukagu...

Eta produkzio garestiagoak egiteko moduan zaudete...

Bai, inbertsioak. Azken finean inbertsioak direlako.

Zer eduki zuen Su Danborrak antzezlanak? Zein zen bere sekretua?

Oraindik ere ez dakigu. Beharbada, gauzak ondo egitea. Lasai, presarik gabe. Esan izan digute orain bageneukala aukera pauso handi bat emateko. Baina guk nahiago izan dugu formatu ertaineko ikuskizun bat egitea. Eta poz-



pozik. Ez daukagu presarik tontorrik zapaltzeko. Egunen baten baldin badator, datorrela. Baina gu oso trankil bizi gara. Betikoak gara.

Atzera begira jarrita, duela bederatzire urte sortu zinenetik, ze alde dago?

Dena. Gure lehenengo ekitaldia Santxun egin genuen, Gaztediren lokalean. Gainera, Asapala kultur elkarte jaio berriaren eskutik. Eurek eman ziguten aukera gure lehenengo antzez-lana egiteko eta gainera non eta gure auzoan. Baina aldea izugarria da. Lau ginen, orain euretatik bi gelditzen gara. Orain enpresa bat gara, produktora ere badaukagu...

Eta Garbitxu? Antzezlan berrian aktore lanak utzi eta zuzendari eta gidoilari zaitugu...

Zuzendaria, gidoilaria, teknikaria... Dena. 'Su Danborrak' egin genuenean

erabaki genuen gehiegi zela zuzendari eta aktore batera izatea. Orain kanpotik ikusten dut eta hori ere lagungarria da. Begoña Gomezen laguntza ere eduki dugu.

Baina faltan igarriko duzu...

Jakina. Nire formazioa aktorearena izan da. Zuzendariarena gero etorri da, norbaitek hartu behar duelako.

Zelan ikusten duzu euskal antzerkia gaur egun?

Ondo. Gero eta produkzio indartsuagoak egiten dira, politikak... Kriston harrobia dago. Deabru Beltzak-ek nazioarteko bidea zabaltzeko zortea eduki du. Lehenengo taldea gara nazioarteko merkatua daukana. Nik uste dut klabea dela zortea eta gauzak ondo egitea.

Eta igarri duzue nazioarte mailan ospea lortu ondoren etxean gehi-

go baloratzen zaituztetela?

Bai. Orain dela hiru urte esan nuen 'Su Danborrak' Euskal Herrian egitea kostatzen zitzaigula eta kurrikulum ederra geneukan. Orduan %80 atzerrian egiten genuen; orain Euskal Herrian ia erdia egiten dugu eta hori pozgarria da. Gainera, bidaiez nekaituta gaude. Kilometro gehiegi dira.

Ekitaldi magikoren batekin akordatzaren zara?

Bai. Montrealekoa. Nazioarteko jaialdirik garrantzitsuenean parte hartzea itzela izan zen. Horrelako makrojaialdi bat barrutik ezagutzea... Eta gero Venezuelan. Kontu egizu: ekitaldia amaitutakoan bi mila pertsona geneukan zain autografoak sinatzeko. Ordu bi eta erdi eman genituen... Ikaragarria. Askotan pasatzen zaigu gutxi batzuk etortzea gurekin berba egiten... baina bi mila lagun! Pozgarria eta nekagarria izan zen

Hamar galdera labur

Pelikula bat: 'Snacks, cerdos y diamantes'.

Liburu bat: 'El perfume'.

Antzezlan bat: 'Su danborrak'.

Kanta bat: Manu Chaoren edozein.

Janari bat: Arroza.

Kirol bat: Igeri egitea.

Mendia ala hondartza? Hondartza.

Leku bat: Montreal.

Izen bat: Naia.

Amets bat: Gure taldeak holan jarraitzea.

Zelan baloratzen duzu Athleticen aurtengo denboraldia?




LUIS (TXURDINAGA)

DENBORALDI ONA IZAN DA. BEHARBADA HELBURU GEHIEGI EDUKI DITUGU. KOPAKO FINALERA SARTZEKOTAN EGON GARA, UEFAN ERE HOR ETA LIGAN ONDO. LIGAN HOBETO IBILIKO ZEN BESTE TXALPELKETA BIETAKO BATEAN KANPOAN GELDITU IZAN BALITZ.



IÑAKI (BOLUETA)

EZ ZAIT FUTBOLA ASKO GUSTATZEN. PARTIDU GUTXI BATZUK BAINO EZ DITUT IKUSI.



IBAN (SANTUTXU)

LEHENENGO ZATIA EDERTO BAINA AMAIERAN ERRETA. AZKENEAN EZ DUTE ASMATU. BAINA DENBORALDIA ONA EGIN DUTE. FROGA GAINDITU DUTE.



NEREA (BASURTU)

ASKO EMOZIONATU NAIZ, BATEZ ERE BETISEN KONTRAKO PARTIDUAN. PENA IZAN ZEN KANPOAN GELDITZEA. BAINA URTEA, NIRETZAT, ONDO.



KRISTINA (SANTUTXU)

ONDO HASI ZIREN BAINA AMAIERA PENAGARRIA IZAN DA, EZ DUTELAKO EZER LORTU. AZKENEAN INTERES BAKARRA KOPAN EGON DA.




QUIROGA (SANTUTXU)

AZKENEAN DEFRAUDATU DUELA USTE DUT. BAINA BENETAKO ZALETUEK EZ DUTE INOIZ ATHLETIC BAKARRIK UZTEN.



PATXI (SANTUTXU)

ONDO KOPAKO FINALAURREKOTARA HELDU GARELAKO. BAINA BAZKIDEA NAIZ ETA JOKOA EZ DA OSO ONA IZAN. BAINA ILUSIOA PIZTU DA UEFAREKIN ETA KOPAREKIN. BETI BEZALA, SARIEN ATETTAN GELDITU GARA.



MAITANE (SANTUTXU)

EZ DUT IKUSI PARTIDURIK, BETISEN KONTRAKO FINALAURREKOA BAINO EZ. ASKO GUSTATU ZITZAIKAN ATHLETIC ETA PENA IZAN ZEN. IRABAZTEA MEREZI ZUTEN.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Diputazioak Maurice Ravel etorbideetik hasiko ditu boulevard berriko lanak

Obrak udagoiengan hasiko dira eta Zumalakarregin 2008an amaituko dira

Bilboko Udalak eta Diputazioak aspaldian erabaki zuten Ravel eta Zumalakarregi etorbideak boulevard gisa atondu behar zituztela. Horrela, autobidea lurpean sartu barik, bertako herritarrentzako kalteak -zarata,

kutsadura, banatuta bizitzea,...- desagertuko direlakoan daude. Obrak datorren udagoiengan hasiko dituzte Salbeko zubitik eta Maurice Ravel etorbideetik. Gero, Zumalakarregi.



Ravel eta Zumalakarregi elkartzen diren lekua. Hemen errotonda handi bat egingo dute.

Denetara Diputazioak 25 milioi pezeta gastatu ditu Maurice Ravel eta Zumalakarregi autobide itxura laga eta boulevard gisa paratzeko. Lanok sei zatitan banatu dituzte eta udazkenean hasiko dira. Lehenengo zatia Sabeko zubia izango da. Haren ostean, zubitik Etxezuriko bidegurutzera bitarteko paratu gura dute. Azken zatia Ibarsusiraino doa eta oraindik zehaztu barik dago.

likagaz lotzeko bidea behobetuko dute.

Azken zati bietatik lehenengoa Santutxuko sarbiderainoko tartea da. Zabalbiden beste biribilgune bat jarriko dute eta Jose Maria Makua plazako kale ingurua oinezkoentzat

ZUMALAKARREGI PASEALEKUA

Boulevard berba erabili zuten Diputazioko agintariak Zumalakarregin egingo dutena azaltzeko. Izan ere, kilometro erdi luze izango den pasealekua atonduko dute errepide ondoan. Pasealekuan arbolak jarriko dituzte eta, jakinarazi dutenaren arabera, bizikletentzako bidegorria be paratuko dute. Hala Ravelen nola Zumalakarregin autoen pasaera gatxagoa izango da. Karril gutxiago edukiko dute erabilgarri eta semaforo eta zebra bide gehiago egongo dira. Autoek, derrigorrez, geldiroago joan beharko dute. Proiektuaren beste alderdi garrantzitsu bat auzoen arteko lotura da. Urteetan hesi itzela izan da autobidea eta azkenaldion semaforoak paratu izanak lokarriarena egin du. Zurbaran eta Begoñalde ez daude orain Begoña edo Uribarritik hain banatuta. Proiektu berriarekin, loturak are errazagoak eta estuagoak izango dira.

OBRA NEKAGARRIAK

Denetara, obrak 2,7 kilometroko kale zatia urbaniztuko du eta, jakina, egin bitartean inguruetako bizilagunentzat molestiak eta kalteak nabarmenak izango dira. Baita ere bertatik Bilbora sartu gura duten auto gidarientzat ere. Izan ere, berez hori errepide bat da, N-631 izenekoa, eta obrak amaitutakoan eta errepidea pasealeku bihurtutakoan Diputazioak Bilboko Udalaren esku lagako du.

Urtzi Urrutikoetxeak Bilbo eta bilbotarrak protagonista jarri ditu 'Auzoak' bere ipuin liburuan

Urtzi Urrutikoetxea 'Auzoak' ipuin liburua aurkeztu du maiatzean. Bere 150 orrietan Bilbo, bere bazterrak eta hiritarrak dira protagonista. Gure hiria bihotzera egindako

bidaia da 'Auzoak', zeharkaldi erakargarri eta polifonikoa. Idazle mahatsorriak Joseba Jaka beka irabazi zuen liburu hori idazteko eta Susa argitaletxeak plazaratu du.

Bilbo modan dago azkenaldion. Askoren jarraibide bilakatu da hiri industrial motza zera zerbitzuetako metropoli eder bihurtu ostean. Ahate motzen kluba laga zuen zisnea. Euskal literaturan be, azkenaldion Bilbok gero eta leku gehiago eskuratu du. Edorta Jimenez, Unai Iturriaga,... Bilbo euren nobeletako eszenatoki bilakatu zuten. Paddy Rekaldek orain gutxi bere 'Bilbo Dub Kronika' poema liburua kale-ratu zuen eta orain Urtzi Urrutikoetxearen 'Auzoak' dator.



Urtzi Urrutikoetxea, erdian, Likiniano liburudendan liburua aurkezten.

Zehaztu dezagun, hala ere, euskal literaturako Bilbo hori ez dela Guggenheim eta atzerritar turisten hiria. Idazleok Bilboren erakusleho distiratsua alde batera laga eta benetako hiria islatu izan dute. Urrutikoetxeak ere Bilbo guztiak batu gura izan ditu baina bere begirada auzoetatik barreiatu du. "Geurean be xarma egon leike, geure kaleetan eta geure izenakaz", esan zuen idazle mahatsorriak Likiniano liburudendako aurkezpenean.

ruan oxi txarra dagoela ez dot ukatuko. Esate baterako, Iñaki Uriarte arkitektoak asko daki, eta bere ibai barruko lezioak zoragarriak dira. Benetako arlotekeria da norberarena apreziatu ez eta bestea ekarri".

Urtzi Urrutikoetxea maiatzaren 25ean Arbideako eskalategian egon zen liburua aurkezten, Asapalaren 'Irakurlearen tartea' ren eskutik. Liburuaren azala, bestalde, beste mahatsorri batek paratu du, Alain M. Urrutiak hain zuzen ere.

Jakina, Begoñako errepublika zaharreko auzoak eta herritarrak sarritan azaltzen dira kronika horretan zehar. Santutxu, Txurdinaga, Otxarkoaga, Arabella, Bolueta,... ez ditu Urtzik saltzeko. Sorgintxuloren aldeko aitamena be ez da falta.

Bilbo erreala fikzio-ra ekartzerakoan Urrutikoetxeak ez du balizko objektibotasunaren goardasola erabiltzen. Kritika ez da falta, Bilbo berri horren distirarekiko zorroztasuna. "Liburu-

Kirolak
Punta-puntako kirol markak


Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01

M A H A T S B E R R I A K

M A H A T S B E R R I A K

HORTZMUGAK 'ZIRKO ILUNA' OBRA BERRIA ZURBARANEN AURKEZTU DU.-

Hortzmuga antzerki taldeak bere auzoan, Zurbaranen, egin du bere obra berriaren jendaurreko estreinako saioa. 'Zirko iluna' antzezlanak zirko zahar eta akabatu baten istorioa kontatzen du, geratzen diren pertsonaien esperientzien bidez. Txo-



txongilo erraldoiak, zirko saio txikiak eta etengabeko parte hartzea nahasten ditu bidaia fantastiko eta hunkigarri baten bidez. Familiarteko ikusleagoari begirako kale antzerkia da. Zurbaranen txalo asko batu zituzten. Argazkiok, lekuko.



IÑAKI HERRAN ETA SONIA MARIN, LIBRE.-

Maiatzean zehar Santutxuko gazte bi atxilotu dituzte espainiar poliziak. Iñaki Herran 'Txapas' Frantziatik kanporatu ostean Guardia Zibilak libre laga zuen baina handik egun batzuetara Espainiako nortasun agiria egitera joan zenean Polizia Nazionalak atxilotu zuen. Egun batez polizia-etxean eduki ostean, libre laga zuten. Bestalde, maiatzaren 10ean Guardia Zibilak Santutxuko Sonia Marin atxilotu zuen eta, bost egunez inkomunikatuta eduki ondoren, libre utzi zuen epaileak. Argazkian, presoan aldeko mobilizazio bat.




ISOZAKI ATEA, BERE ALTUAN.-

Egunokaz ederto ikusten da Campo Volantinetik Uribitarteko Isozaki Atea proiektuak hartuko duen dimentsioa. Dorreetako batek bere 41 pisu erakusten ditu eta bestea hortxe-hortxe dago. Gainera, inguruetan etxe baxuagoak egiten ari dira. Obrak hasi baino lehen Campo Volantineko eta Uribitarte aldeko auzo batzuk proiektuaren kontra azaldu ziren.

EZIN EUSKARAZ EGIN.-

Lander Fernandez euskal presoari behin behineko espetxe aldia luzatu diote Frantzian. Presoak euskaraz egin izanagatik bere defentsa eskubidea murriztuta gelditu dela salatu du Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteak. Maiatzaren 26an salaketa elkarretaratzea egin zuten Frantziako konsulatuaren aurrean. Elkarteak salatu duenez, beste epaiketa baten hamabost euskaldunei euskaraz egiteko eskubidea ukatu zion frantses epaileak "euskaraz egitea ETArri sostengua ematea dela" esanez.



E
R
R
I
K
A
R
I
A
K

E
R
R
I
K
A
R
I
A
K

AURTENGO UEUKO IKASTAROETAN IZENA EMATEKO EPEA EKAINAREN 19AN AMAITUKO DA



Herri Eskola Santutxun

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) ate joka datorkigu. Ekainaren 19a arte izena emateko epea zabalik egongo da. Ostean, eskolak. Aurten lehenengoz, hiru lekutan: Biarritzen -uztailaren 4tik 8ra-, Eibarren -nobedatea, uztailaren 11tik 15era- eta Iruñean, -uztailaren 18tik 22ra-. Jakintzaren arlo guztiak jorratuko ditu, beste behin, UEUK. Aurtengoa hogeita hamahirugarren edizioa da.

Euskara eta unibertsitatea berbak lotzen baditugu, lehenengo-lehenengo UEU etorriko zaigu burura. Udako Euskal Unibertsitateak aurten bere hogeita hamahirugarren edizioa beteko du. Urte guzti horietan belaunaldi batzuk pasatu dira bere geletatik euskaraz jakintza arlo guztiak jorratuz. Oraindik, hala ere, euskal unibertsitate batek urrun gaude. Euskal Herriko unibertsitate publikoek -EHU, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, ...- ez daukate euskal unibertsitate bilakatzeko asmorik. Pribatuak ere, beste horrenbeste, nahiz eta euren artean alde handiak izan.

Euskaraz jarduten duen komu-

nitate zientifikoa osatzeko ardura UEUren eskuetan datza gaur egun. Jakina, asko dira unibertsitate publiko zein pribatuak euskaraz diharduten irakasle eta ikeritzaileak. Baina instituzio horiek ez dira euskara hutsez funtzionatzen eta ez da hori euren xedea ere. UEUKo zuzendari Lore Erriondok esan legez, "UEUren udako ikastaldiak unibertsitario euskaldunen bilgune izateaz gainera euskal kulturaren erakusleho txiki bat ere badira. Hauek antolatzea oraindik ere beharrezko jotzen dugu, beren bitartez, komunitate unibertsitario euskaldunak elkarren berri duelako,

elkar ezagutu, lanak, proiektuak, ikerketak partekatu,...".

GIRO BIKAINA

Edozelan be, UEUKo protagonista nagusiak ikasleak dira. Holantsik izan da azken hogeita hamabi urteotan eta, itxura guztien arabera, berdin jarraituko du. Erriondok nabarmendu duenez, "ikasle gehienak beren ikasketetan sakontzeko asmoz badoaz ere, hainbat, osatze asmoz, beste jakintzatan murgiltzen zaizkigu. Ez dago hesirik, ez mugarik. Nornahik zernahi egin dezake. Gogo da eskatzen zaion baldintza bakarra".

Gogo faltaz ez da inor joaten

UEUra eta horrek giro berezi eta jatorra iziotu izan du, urtero-urtero, ikastaroetan. Grina, jakin-mina, gaztetasuna. "Gure ikastaroak -esan du Lore Erriondok- gazteak dira gazteak direlako gehien hurbiltzen zaizkigunak. Baina, gurasoak eta seme-alabak elkarrekin ikusi ahal izan ditugu inoiz ikastaroetan, beti gazte. Pozgarria da, zinez, eta horregatik zabaltzen dizkiegu aurten ere ateak".

Koktel horretatik indarberrituta ateratzen da euskarazko kulturgintza eta unibertsitate mailako jarduna. Ideia eta proiektu berriak abiaraziko dituzte, argitalpen gehiago plazaratuko dituzte, arlo berriak ekarriko dituzte euskarara.

ARLORIK ARLO

Esan bezala, hiru lekutan egingo dituzte aurtengo ikastaroak. Biarritzen, antzerkilaritza, musika, osasuna, hizkuntzalaritza, natur zientziak, literatura, pedagogia eta sexologia eskolak emango dituzte, besteak beste. Ostean, Eibarren, beste lau ikastaro egingo dituzte, ekonomia eta sexologia tartean. Azkenik, Iruñean, programako alderdirik potoloena gauzatuko dute: arkitektura, filosofia, kimika, bertsolaritza, historia, antropologia, yoga, soziologia, kazetaritza,...

Ikastaroetan parte hartzeko diru laguntzak izaten dira. Besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak badu horretarako partida bat. Epea, esan legez, ekainaren 19an agortuko da. Informazio gehiago gura duenak, jo beza www.ueu.org helbidera. Bestela, hona hemen Bilboko egoitzaren telefonoa: 94 679 05 46.

KANPINA EUSKARAZ



Uda honetarako badira gaztetxoei begira euskaraz antolatutako hainbeste ekitaldi. Ez dira gutxi Bilboko Udalak, ikastolen elkarteak eta beste elkarte batzuek prestatutako euskarazko udalekuak. Guk oraingoan beste proposamen bat nabarmenduko dugu. Familia osorako plana da, Bilboko Zenbat Gara elkartearen eskutik. Nafarroako Aurizberrin, Pirinio mendietako gerizan oporraldia euskaraz igarotzeko aukera zabal-tzen dute aurten ere Urrobi kanpinean. Igerileku natural zein artifiziala, tenis pistak, bungalowak, soropilak eta zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen dituzte (taberna, jantokia...).

Umeentzako kirol eta jolas aktibitateak begiraleekin batera egingo dituzte, goizez bi ordu eta arratsaldez bi ordu eta erdi. Ekitaldiak kanpinean zein inguruko herrietan izango dira. Gainera, kultur emanaldiak uztailean eta abuztuan: kontzertuak, pailazoak, antzerkia... Informazio gehiagorako, jo web gune honetara: www.zenbatgara.org edo telefono honetara: 94 423 75 91.

HUHEZI: FAKULTATE EUSKALDUNA

Psikopedagogia. Irakasle ikasketak. Komunikazioa. Enpresa

Dorleta z/g
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

Tel.: 943 71 41 57
sarrera@huhezi.edu

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Justuegune, Euskalsune
Aitziber Inuria
Iduna Taldea
Urtzi Urrutikoetxea
"Magitzen hitzak geroztik jarotzen ditut frontistekoa"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Miren Agur Meabe
"Euskal literaturan antzitasuna eta maila altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Eladio Montiel, Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Mikel Alvarez, mahatsorri bat Everesteko tontorrean

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Ignacio Agirre: "Batu nolabait tempala jarraitu asperrantz"

bertan


MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

MELLO (633 M.) MONTELLANO (GALDAMES)

Muskiz herrian kokatuko gara. Ezkerre-rantz errepide bat irteten da Sopuerta-Balmasedara, hiru kilometrotara Pobal auzoa pasatu eta gero bidebanatze bat aurkituko dugu. Bertan, bide nagusia utzita eskumaldera doan aldapa hartuko dugu eta beste hiru kilometrora Montellano auzoan egongo gara (auzo hori Galdames herriari dagokio). Plaza antzeko batean utzi genuen autoa aparkalekuan (A).

Handik, gorantz irteten den bidetik abiatuko gara (txalet antzeko baten ate gainean "Aterpemendi" izeneko burdinazko txartela agertzen da). Apur bat gorago beste etxe mordo baten inguruan dagoen garbilekuaren ondotik igoko gara. Aurrerago atsedenekua ezkerrean utzita hesi bat igaro beharko dugu.

Pixka bat aurrerago ezker aldean ikus daitekeen ur biltegi baten ondoren bidebanatze (B) batean hesi bat gurutzatu beharko dugu. Erdiko bidetik gorantz lepo bateraino joan. Handik Muskiz herria ikus daiteke lehen aldiz. Berrito gorantz pinu makurra dagoen ondotik jarraituz muino (C) baten beheko aldean egongo gara (gaur egun pinuz eta hesiz inguratutik dago). Toki horretatik basabide edo pista bi ateratzen dira bata ezkerrean eta beste eskuinalderantz. Bata zein bestea hartuz biak eramango gaituzte ikur zurigorriak dituen zabalgunera (D) batera. Handik zuzen gorantz eta aipatu ditugun ikurrak galdu gabe, beste muino bat gaindituta, laster Kantabria eta Bizkaiko muga egiten duen Mello tontorrean egongo gara. Bi txartel kutxa zahar eta berri bat daude.



nak (E) nabariak dira gaur egun ere. Auzo hartan txakolina egiten dute eta txakolindegia bat dago. Antzina eskualde horretan oso garrantzitsua zen jarduera baten azken aztarnetako bat, antzina Galdamesko auzo guztietan egiten zen eta. Guk behintzat txakolina egiteko tresneria ikusteko aukera izan genuen eta baita edari gozo hori dastatzeko ere.

JAKINGARRIAK

Iraupena: Guztira ordu bat eta hamar minutu.
Kultur oharrak: Montellano auzoan Antonio Trueba idazle eta olerkari ospetsua jaio zen. Bere jaiotxearen aztar-

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo
Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia: Solairua:
Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
Telefonoa:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN **DOHAIN**

Sinadura


Pastreria PEDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.jopez@navogalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
O.P.E.: 039/97
94 412 82 74

MESÓN BURETXE
Santutxuko poteo gunean

SANTUTXUKO BERTSO PLAZA

BIGARREN URTEZ UDABERRIKO BERTSO SAIOAK KARMELO PLAZAN EGIN DITUZTE



Amets Arzalluz bertso kantari

Testua eta argazkiak: Iratxe Ruiz
Maiatza loreen hilabetea da. Eta Santutxun bertsoena ere bada, azken urte biotan. Bertako Bertso Eskolak bertso emanaldiak antolatu zituen iaz, Bilboko Udalaren babesarekin, maiatzeko larunbatetan. Arrakasta ikusita, aurten ere errepikatzea pentsatu zuten.

Maiatzeko saioetako ezaugarriak herritarren erantzun ona -80 bat saio-, eguraldi gozoa eta bertso giro polita izan dira. Bertsolarien jardunarekin gustura gelditu dira zaleak.

Aurtengo lehen hitzordua maiatzaren 7an izan zen. Taula gainean Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña zeuden. Aurrean 70 bat bertsozalek egin zuten topo. Baina egia esan, beste horreneste persona bazegoen Karmelon, 140 inguru. Beste horiek ez zuten bertsolariek abesten zutenari erreparatzen, ezta kasurik egiten. Dotore jantzita zeuden denak... ezkontzen garaia helduta, mezatik irteerako denak pilatu ziren plazan.

Irudi hori hurrengo saioetan errepikatu zen, eta bertsolariei atentzioa eman zien, errimetan islatu baitzuten imajina.

SORGINTXULO GOGOAN

"Hemen gaude berriz, ezer gertatu ez balitz, baina horko txokoa iaz ez zegoen horrela", gutxi gora behera, eta dagokion errimarekin noski, izan zen Lujanbio-ren agurra, Sorgintxulori begira kantatu zuena.

Bertsotan aritzeko gaurkotasunarekin lotutako gaiak jorratu ziren gehien bat. Espainiako Etxebizitza Ministrak proposatutako 30 metro koadroko etxeez mintzatu ziren, etorkinen egoeraz, tabakoaren gaineko legeaz, eskoletako euskara ereduez edota antxoaren eskasiaz.

Maiatzean handien artean handienak hurbildu dira beste behin Mahatserrira: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Sustrai Kolina, Amets Arzalluz, Iratxe Ibarra, Igor Elortza, Fredi Paia, Arkaitz Estiballes... Eta gure ordezkari gisa baita Oihana Bartra mahatsorria ere.

Hori gutxi balitz, aurtengo 'Udaberriko Bertso Saioak' jaialdiak berrikuntza bat ekarri du: azken egunean, maiatzaren 28an, alegia, 'Iturrian zer dago?' ikuskizuna, Xukan taldearen eskutik; zer eta dantza eta bertso-larritza uztartzen dituen ikuskizuna.

Taberna Dordoka
Pza. San Martín de la Ascensión
SANTUTXU

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO
Telf. 94 411 99 33

IGOR ELORTZARI:

Igor Bizkaiko hainbeste txapel dozu urteotan jantzi, baina Anoetan irabaztea ezin inoiz erdietsi. Txapela ez da Bizkai aldera 16 urtez iritsi ta Barakaldon dogunez aurton urteten ez eiozu itzi".

Barre algara eta txalo anitz eragin zituen egoera honako hau izan zen. Jakingo duzue, aurten Euskal Herriko Txapelketaren finala Barakaldoko BEC-en ospatuko dena. Hartaz, hiru biderrez txapela jantzi duen Egañari esan zioten eraikin



Maiatzaren 14ko saioa

horretan erretzea debekatuta dagoela, eta ea zer egingo duen ezpainen artean momentu oro duen zigarroarekin. Ironia dotorearekin erretzeari uztea ezinezkoa zaiola erantzun zuen Egañak. Nahiago zuela txapela barik lotzea!

Saioen amaieran, Santutxuko Bertso Eskolakoek prestatutako ber-

MAIALEN LUJANBIORI:

"Orain lau urte irentsitako sentipen gazi-gozaok mendeku bila irtengo dira gezi bihurtuz bertsoak. Guztiok ari gara entzuten mutil baten errezoak ez al dizu ba pena ematen Andoni gizagaixoak?"

tsoak ikusleek abesteko aukera izan zen, ohitura denez. Orri honetan bertan horietarik bi paratu dizuegu, nahi izanez gero zuek ere kanta ditzazuen.



Maiatzaren 7ko saioeko ikuspégia orokorra

GARAIZAR
JESUS GALINDEZ, Nº 10
Telf. 94 473 32 25 GARAIZAR - BILBO

santutxuko herriko taberna
Iturriaga 96.
Gosari bereziak:
Kafea + pintxo 1,50 €.
Euskal Herria AURRERA!!

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Txirripaz libratu zara. Gasteizen hogeita hamahirunaka jarraitu izan balebe... igoal zu joan beharko zinan bakeak egiten. Zeozergaitik zara zure portaleko presidentea.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Zure burua Katedrakotzat jotzen dozu baina... ez dozu behin be asmatzen!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Carlinhosen errua? Carlinhos joan eta hamabi ordu geroago oraindino hantxe segitzen zendun, dantza sueltoan gelditu barik.
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Egunetik egunera panorama gero eta itxura politagoa deko. Ez zara kexatuko, ezta?
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Garagarraren zukua osasuntsua ei da. Baleike. Baina upelka edatea...
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Zinema, literatura, artea, antzerkia, ... ondo dagoz baina ez dira nahikoa izango. Zure barruan futbol denboraldia amaitu izanak zulo handiegia laga dau.
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Beroak alderdi onak eta alderdi txarrak dekoz, gauza guztiek lez. Baina kaletik panorama ikusi eta denok zorionsuago goaz, ezta?
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Bidaia luze eta zoragarri bat egingo dozu. Lagun barriak egingo dozuz eta paraje ederretatik ibiliko zara. Hori bai, oraindik ez dozu erabagi bidaia metroz ala bilbobusez egingo dozun.
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Begiak malkotan. Negar anpuluaren arrastoa zure aurpegiari. Bekoki ilun. Isilik. Larria da, bai, baina aurrera egin behar dogu. Bizitzak segitzen du eta... datorren urteko Kopa gure begira deko.
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
MP3, i-pod, sms, bluetooth, e-mule, megapixel, wi-fi, ... azkenaldion erdia be ez dotsut adituten.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Alderdi ilunetik gero eta hurrago, atzealde beldurgariaren atzaparretan jautzekotan zagoz. Horixe da jediek dekozuen arazoa. Guri ez jaku pasatzen.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Beti geldituko jaku Lieja. Aupa Athletic!

agenda

EKAINAK 2
HANKATXO ANTZERKIAREN
ESKUTIK 'HITZAK PATRIKETAN'
ANTZEZLANA. BEGOÑAKO
UDALTEGIAN. 17:30EAN. BILBOKO
UDALAK ANTOLATUTA.

EKAINAK 3
BERTOKO FOLKLOREAREN
JAIALDIA. BEGOÑAKO JUAN XXIII
PLAZAN (BASILIKAREN OSTEAN):
TXALAPARTA, GAZTEDE DANTZA
TALDEA ETA BERTSOLARIAK.
BILBOKO UDALAK ANTOLATUTA.

EKAINAK 10
YA TE DIGO. ROCK KONTZERTUA.
BILBOROCK.

EKAINAK 10
LESNADIES ANTZERKI TALDEAK
'BIRI BILA' KALE ANTZEZLANA
EGINGO DU. BEGOÑAKO JUAN
XXIII PLAZAN. BILBOKO UDALAK
ANTOLATUTA.

EKAINAK 10-12
GETXOKO BLUES JAIALDIA.
ALGORTAKO PORTU ZAHARREAN.
KONTZERTUAK DOAKOAK DIRA.

EKAINAK 16
KORRI ETA XALTO PAILAZOAK.
'SHOW BERRIA PRESTATZEN'.
BEGOÑAKO UDALTEGIAN.
BILBOKO UDALAK ANTOLATUTA.

EKAINAK 17
BERTSO AFARIA. JON MAIA ETA
JESUS MARI IRAZU.
KAFE ANTZOKIA.

EKAINAK 17
ABESBATZEN KONTZERTUA.
BOLUETAKO KALAMUA PLAZAN,
OGOÑO KALEAREN ONDOAN.
BILBOKO UDALAK ANTOLATUTA.

EKAINAK 24
LABURMETRAIA MARATOIA.
BOLUETAKO KALAMUA PLAZAN.
BILBOKO UDALAK ANTOLATUTA.

EKAINAK 26
'LAUAXETA EZ ZAITEZ GERNIKARA
JOAN'. HERRI ANTZERKIA.
ARRIAGA ANTZOKIA.

